



[Bilbo] Okupazio Eguna

BILBOKO OKUPAZIO MUGIMENDUA :: 19/01/2012

Urtarrilak 28, larunbata

11:00- Okupazio topaketak

13:00- EHko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen arteko olinpiadak

15:00- Bazkaria

17:00- MANIFESTAZIOA Arriagatik "Gure ametsak dirauen bitartean zuenak egin du!"

19:00etatik aurrera: ALDE ZAHARRA OKUPATUZ!

Kale animazioa, bertsolariak, DJ-ak...

22:00- Kontzertua

ITZIARREN SEMEAK

<http://www.okupazioeguna.tk>

U-28 BILBORA!

Urteak dira autogestioa eta okupazioa tresnatzat hartuta bizi eredu ezberdin bat eraikitzeko lanean gaudela. Kapitalismo basatiaren indibidualismoaren aurrean, era kolektiboan, elkarlanez, Bilbo, Euskal Herri eta mundu ezberdin bat sortzeari ekin diogu.

Gaztetxeak dira, gaur egun, bizi eredu alternatibo horren adibiderik garbiena, auzoz auzo, herriz herri, kolorez betetako zirrikituak, ametsak egi bihurtzeko esparruak. Hamaika pertsona ezberdinen borondate eta lanari esker, gizarte kutsatu honi bizitza ematen diogu, zuri beltza koloreztatzen dugu.

Merkatuan oinarritutako gizarte honetan, sistema zapaltzaileari pitzadurak sortuko dizkiogu. Badakigu bizitzeko beste era bat dagoela, diruak horrenbeste garrantzi ez duen beste mundu bat, pertsonak eta baloreek garrantzia duten mundua.

Pribatizazio eta espekulazioari aurre eginez Okupazioa tresnatzat, gazteok lokal hutsak bereganatu eta proiektu alternatiboak sortzeari ekin genion, ekin diogu eta ekingo diogu!

Kapitalismoa babesten duten politiko eta instituzioek ez dute horrelako proiektuetan sinisten, haien interesetara mugatutako gizarte bat nahi dute eta horregatik erasotu eta suntsitu nahi gaituzte.

Bilbon eta Euskal Herrian badira horren hamaika adibide:

- Bilboko Gaztetxea

- Iruñeako Euskal Jai Gaztetxea (Polizia Nazionalak bortizki desalojatu eta erautsia)
- Santutxuko Sorgintxulo (2004an Bilboko Udalak bortizki desalojatu)
- Olabeagako Gaztetxea
- 7 KATUren 4 desalojoak, gaur egun bizirik dirau!
- Eta adibiderik garbiena, urte honetako IRAILAREN 21EAN ERTZAINTZAREN ALDERIK BASATIENA ERAKUTSIZ DESALOJATU ZUTEN KUKUTZA III GAZTETXEA! Edo Gasteizko Zaramaga auzoan gertatutako eraso.

Hala ere, esan behar diegu ez dutela lortu gazteon eta proiektu ezberdin hauetan parte hartzen dugunon ilusioa eta grinarekin bukatzea. Lanean diardugu inoiz baino gogo eta indar gehiagorekin. Argi izan dezatela Okupatzen jarraituko dugula! Gure saiakerak, ilegalki desalojatu arren (baimen juridikorik gabe izan bait dira azkenengo desalojoak), gaztetxeak sortzen jarraituko dugu, auzo guztietan, herri guztietan, zirrikitu guztietan! Euskal Herrian, eta batez ere Bilbon, okupatzeari ekin diogu, inoiz baino beharrezkoagoa delako, inoiz baino indar gehiago daukagulako. Kukutza IIren desalojoa kriston kolpea izan zen herri mugimenduarentzat, baina ez gaituzte gelditu. Burua indartsu altxatuko dugu berriro, eta Bilboko auzo bakoitzean gaztetxea bat egon arte borrokatuko dugu.

Hau guztia aldarrikatzeko, datorren urtarrilaren 28an Arriagan 17,30etan hasiko den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu gaur.

Pertsona ameslariak gara, koloretazko ideiekin, koloreztatzeko gogoarekin, zuri beltzari kolorea ematen jarraituko dugu. Eskeintzen digutenaren aurrean! Amesten, pentsatzen, okupatzen eta eraikitzen jarraituko dugu! Ez gaituzte geldituko!

GURE AMETSAK DIRAUEN BITARTEAN, ZUENAK EGIN DU! GAZTETXEAK AURRERA!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/bilbo-okupazio-eguna